

# “Zeraingo haurren baratza ekologikoa” Proiektua



## **1.- AURKEZPENA**

Kaixo lagunak! Gu, Zerain herri txikiko Basarte Guraso Elkarteak gera.

Zeraingo herri eskola txikia bezain goxoa da eta 2-8 urte bitarteko 17 haurrak haurrak pozik pozik joaten dira bertara.

Zeraingo eskola sortu zirela 29 urte pasa dira jada eta urtez urte proiektu berriak gauzatu joan dira: eskolako lokalen berritzeak, hartzaindegiaren sorrera, jangela, zaintza zerbitzua... I hazko ikasturtean erronka handi bat jarri genuen martxan geure buruari Ai ama! esanez, ez bait genekien nondik hasi ere! Eskerrak proiektu honetarako laguntzaile asko inguratu zaizkigun, gainontzean...

Haur, guraso, irakasle, bolondres... denon artean 2011-2012 ikasturtean Zeraingo haurren Baratzak Ekologikoa martxan jartzea pentsatu genuen eta izandako emaitzak onak ikusirik eta proiektua motz gelditu zaigunez, 2012-2013 urtean jarraipena eman diogu.

## **2.- HELBURUAK**

Proiektu honen ardatz nagusia gure hurrekin landuriko baratzak bat sortzea da. Baina baratzak oinarri hartuta hainbat helburu planteatu genituen proiektuaren haseran:

- 1.- Hurrek baratzaren sorrerako prozesu guztian parte hartzea : lurra lantzetik , fruituak jaso artekoa. Hurrek baratzaren gaineko ezagutzak jasotzea.
- 2.- Baratzetik jasotako baratzki eta fruituak umek beraiek dastatzea
- 3.- Hurrekin Elikadura heziketa lantzea: elikadura ekologikoa sustatzea
- 4.- Auzo lana sustatzea
- 5.- Herriko haur eta hedadetuen arteko arremana sortzea. Helduen eskutik ikastea eta galtzorian dauden hitzak berreskuratzea
- 6.- Guraso, haur, irakasle, udaletxe eta herritar ororen arteko elkarlana bultzatzea.

### **3.- LAGUNTZAILEAK / BALIABIDEAK**

Gurasook proiektu hau aurrera eramateko Zeraingo Herri Eskolarekin hitz egin genuen eta beraien urteko planean baratza sartzea lortu genuen 2011-2012 ikasturterako, “Eskola baratza” izenean. Era berean Udaletxeari ikastolatik gertu lur sail bat eskatu genion eta beraien babesa eman ziguten lur sail hori landu eta baratza jartzeko eta horrez gain tresneria gordetzeko lokala ere utzi ziguten eta baita ureztatzeko depositu bat jarri baratzan eta bere mantentze lanaz arduratu (ikus Udaletxeko anexoa). Guraso eta irakasleez gain baratzaren berri herrian gehien dakitenen laguntza eskatu genuen, adineko jende eta bolondresak eta beraien denbora librea guri eskainiz, beraien eskutik ari gera guztiok baratzako berri ikasten.

Proiektuaren koordinazio lana Guraso Elkarteak egiten du eta baratzaren lantzea ikastola orduetan eta ikastolako orduetatik kanpo egiten da. Irakasleen parte hartzea ezinbestekoa da baita bai baratza lantzeko garaian baita ikastolan baratzari loturiko ikasgaiak jorratzean ere.

Azkenik esan proiektu hau gauzatzeko aurreikusten ziren gastu guztiak ordaintzeko ere laguntza eskaria luzatu zitzaioala Goimen lurraldeko landa garapen agentziari eskolaren bitartez (ikus hitzarmena) eta eskerrak! Gudan jarri duten konfidantza eta eman diguten laguntzari esker, haserako gastuak : baratzako itxitura, lanabesak erostea...ordaintzeko gai izan gera.

### **4.- EKINTZAK**

4.1.- Baratzaren sorrera aurreko prestaketak: lursorua aukeratu, udaletxeari baimena eskatu eta prestatu (ikus 2011-ko Abenduaren 19-ko Xagu Ardea aldizkaria): garbitu, ongarritu, goldatu, itxitura egin, baratzako tresneriaren lista eta aurrekontua prestatu, baratzan landatu beharreko produktuen taula eta egutegia egin, irakasleekin baratz lantzeko ordutegia zehaztu, bolondresak aurkitu, arduradunak izendatu...

#### 4.2.- Baratza lantzea - zaintza

Baratza haur, irakasle, guraso eta herriko hedadeko jendearen artean lantzen da. Eta negutegi bat ere jarri zen martxan haziak erein eta landareak jasotzeko, eskolako eraikinaren kanpokaldean.

Baratzako fruituak jasotzean (ikus 2012-ko Ekainaren 25-eko Xagu Artea aldizkaria eta argazkien album-a) haurrek etxera eramaten dituzte gurasoi erakutsi eta prestatu eta jateko.

2011-2012-ko kurtso bukaeratik, 2012-2013-ko haserara, Udaran, ikastola itxita zegoenez, gurasoek baratzaren zaintzarako egutegi bat prestatu zuten, aste bakoitzean famili bat arduratzen zelarik zaintzaz: ureztatu, barazkiak bildu...

#### 4.3.- Heziketako ekintzak

- Eskolan baratzari loturiko gaiak lantzen dira.
- 2012-an jasotako uztarekin Irailean Zerainen egin zen Feri Ekologikoan postu batean haurrek beraien baratzako produktu ekologikoak jarri zituzten erakusgai (ikus 2012-ko Irailaren 25-eko Xagu Arteko Ale berezia)
- Igartubeitira irteera aurreikusten da 2013 kurtso bukaeran, bertako baratza ekologikoa ezagutzera:  
<http://www.igartubeitibaserrria.net/jarduerak/hezkuntza/ibilbide-didaktikoak/#baratza>
- Elikadura osasuntsuari buruzko heziketa (Delikatuz-en eskutik): Ordiziako Delikatuz zentrorra irteera egingo degu, bertan, “Baserritik Platerera” programan parte hartuko dute haurrek. Ikus Anexo I.  
[http://www.delikatuz.com/index.php?option=com\\_content&view=article&id=45&Itemid=13&lang=eu](http://www.delikatuz.com/index.php?option=com_content&view=article&id=45&Itemid=13&lang=eu)
- Zeraingo pertsona helduen eskutik, baratzan laguntzen aritu direnen eskutik, jasotako laborantza munduko hiztegia osatuko da.
- Aurreko puntuari loturik, Zeraingo lanabesen herri museora bisita egingo da, hiztegiko lanabesak ezagutu eta ikusteko.
- Baratzeko haurrek txorimalo bat egingo dute.
- Beasain edo Ordiziako azokara irteera antolatuko da, azoka ezagutu eta bertako baserritarrei galdeketak egiteko.

### **5.- HELBURUEN BETETZE MAILA - BALORAZIOA**

#### - 2011-2012-an lorturikoak

- Haurrek baratzaren inguruan heziketa jaso zuten: negutegia, landaketa, zaintza, bilketa...

- Baratzako fruituak haur bakoitzak bere etxean dastatu ahal izan ditu.

- Hurrekin elikaduraren gainerako heziketa lantzen da egindako eta aurreikusitako ekintzen bidez.

- Elkarrekin desberdinen arteko parte hartzea – elkarlana lortu da, auzolana: Basarte Guraso Elkarrekin, Zeraingo Herri Eskolako irakasleak, Udaletxea, herritarrak, haurrak eta Goimen.

- Zeraingo haurren eta herriko bolondres hedadetuen arteko harremana sendotu da, beraien eskutik zaindu bait dute uneoro baratza (Ikus 2012-ko Azaroaren 30-eko Xagu Arteko alean Guraso Elkarrekin idatzia).

- 2012-2013-an lorturikoak

2011-2012 urteko hildoari jarraituz aurreko ikasturtean beteriko helburuak sendotu egin dira eta ekintza berriekin osatuz.